

**IZARPENSION
LAN RENTA**

**ENPLEGUKO GIZARTE
AURREIKUSPENENKO
PLANA**

Araudia

Aurkibidea

Orrialdea

I. titulua. ATARIKOAK

1. artikulua. Definizioak	2
---------------------------------	---

II. titulua. HELBURUA, IZENA, ESPARRUA, IRAUPENA, MODALITATEA ETA ERREGIMENA

2. artikulua. Helburua	3
3. artikulua: Izena	3
4. artikulua. Esparru pertsonala. Bazkidearen alta eta baja. Eskubide ekonomikoak mugitzea	4
5. artikulua. Iraupena	4
6. artikulua. Modalitatea	5
7. artikulua. Araubide juridikoa	5

III. titulua. ONDAREAREN INBERTSIOA ETA FINANTZAKETA-SISTEMAK

8. artikulua. Inbertsio-politika eta administrazio-gastuak	5
9. artikulua. Finantzaketa-sistemak eta eskubide ekonomikoen zehaztapena	5

IV. titulua. BAZKIDEEN EKARPENAK

10. artikulua. Bazkideen ekarpenak	7
11. artikulua. Ordainagirien ordainketa	7
12. artikulua. Ekarpentak itzultzea	7

V. titulua. PRESTAZIOAK, ZENBATEKOA ETA PRESTAZIO HORIEN ERAGILEAK

13. artikulua. Definizioa eta izaera	7
14. artikulua. Estaltzen dituen kontingentziak	8
15. artikulua. Jasotzeko era eta zenbatekoa	9
16. artikulua. Bazkidearen defentsaria	10
17. artikulua. Arautegia aldatzea	10
18. artikulua. Plana iraungitzeko arrazoiak eta esleitutako ondarearen norakoa	10
19. artikulua. Gatazkak konpontzea	11

I. titulua. ATARIKOAK

1. artikulua. Definizioak

a) Plana

Honako araudi honek arautzen duen Izarpension Lan Renta, Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Plana da.

b) Planaren esparrua

Plan hau Izarpension, Enpleguko BGAE (aurrerantzean, Erakundea) erakundearen baitan eratu da.

c) Bazkide ohiko edo osoak

Enpresa bateko langilea edo enplegatua den edozein pertsona fisiko izan ahal izango da ohiko bazkide, baldin eta enpresa hori Erakundearen bazkide babeslea bada eta pertsona horrek planean sartzeko borondatea adierazten badu Atxikipen-buletinean.

Era berean, Izarpension Enpleguko BGAEan sartuta ez dauden enplegu-planetan egon den edozein pertsona fisiko ere izan daiteke planeko ohiko bazkide, baldin eta plan hartan sartzeari eragin zuen enpresarekiko lan-harremana amaitutakoan edo arautegiak onartzen duen beste edozein arrazoiengatik Erakunde honetan sartzeari eskatzen badu eta bere partaidetzak intsuldatzeko eta Planari atxikitzeko buletina formalizatzeko eskaera egiten badu.

Ohiko bazkideen mota hauek daude:

Bazkide aktiboak: eurek zuzenean edo hirugarrenek euren izenean egindako ekarpen ekonomikoen ondorioz, eurentzat edo euren onuradunentzat prestazioaren bat jasotzeko eskubidea duten pertsonak.

Bazkide pasiboak: bazkide aktibo izan ondoren, prestazioaren titular zuzen bihurtu direnak, kontingentzia gertatu ondoren babestutako subjektuak direlako.

Etendura egoeran dauden bazkideak: bazkide aktibo izan ondoren, gaur egun ekarpenik egiten ez dutenak, ez beraiek zuzenean, ez hirugarrenek beraien izenean.

d) Bazkide babeslea

Bazkide babesleak, berriz, beren jarduera eta ekarpenen bidez Erakundea edo haren aurreikuspen-planetako bat garatzen eta mantentzen parte hartzen dutenak dira. Ez dute onura zuzenik jasotzen, baina gobernu-organoetan parte hartzen dute, Estatutuetan ezarrita dagoen moduan.

e) Onuradunak

Heriotzagatiko prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsona fisikoak dira onuradunak. Horretarako, ohiko bazkide osoak prestazioen onuradunak izenda ditzake heriotzaren kasurako; onuradun zehatzik adierazi ezean, hauek izango dira ordena honetan: bizirik dagoen ezkontidea, bizirik dauden seme-alabak eta bizirik dauden gurasoak, eta, horiek guztiak ezean, legezko oinordekoak.

Kontingentziaren ondoren, prestazioaren onuradunak aukera izango du bere eskubide guztiak edo batzuk kobratzeko, mugitzeko edo Erakundean uzteko.

Erretiroaren, baliaezintasun handiaren, erabateko ezintasun iraunkorraren, ezintasun iraunkor osoaren, iraupen luzeko langabeziaren eta gaixotasun larriaren ondoriozko prestazioen jasotzaileak ohiko bazkidea izan behar du beti.

Heriotzagatiko prestazioen onuradun izateko, ez da nahitaezkoa aurretik ohiko bazkidea izatea. Are gehiago, egokituz gero, Erakundeko beste edozein Gizarte Aurreikuspeneko Planetako ohiko bazkidea ere izan daiteke plan honen onuraduna.

***II. titulua. HELBURUA, IZENA, ESPARRUA, IRAUPENA,
MODALITATEA ETA ERREGIMENA***

2. artikulua. Helburua

Plan honek helburu bi ditu: batetik, ohiko bazkideei prestazio ekonomikoak ematea, erretiroa, baliaezintasun handia, erabateko ezintasun iraunkorra, ezintasun iraunkor osoa, iraupen luzeko langabezia eta gaixotasuna larria sortzen zaienean; eta, bestetik, ohiko bazkidearen onuradunei prestazio ekonomikoak ematea, partaidea hiltzen denean.

3. artikulua: Izena

Plana Izarpension Lan Renta, Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Plana izenarekin eratu da.

4. artikulua. Esparru pertsonala. Bazkideen altak eta bajak

Plan hau Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok sustatu du eta Izarpension, Enpleguko BGAE erakundean dago txertatuta.

Planari atxikitzea eskatu eta planean aurreikusita dauden ekarpenak egiteko betebeharra hartzen duen edozein pertsona fisiko izan daiteke bazkide oso edo ohiko. Gainera, Erakundeko bazkide egin beharko da partaide, lehendik ez bada behintzat, eta Erakundearen estatutuetan eta araudi honetan ezarritakoa bete beharko du. Beharrezkoa da pertsona fisikoak bere burua behartzeko ahalmena izatea.

Planari atxikitzeko buletina edo kontratua sinatu eta hasierako ekarpena ordaindutakoan lortzen da bazkide osoa edo ohikoa izatea.

Bazkide babesle izateko, gainera, Izarpension, Enpleguko BGAEk onartu egin beharko du.

Bazkide osoak edo ohikoak bazkide izateari utziko dio bi kasu hauetan: hiltzen denean edo bere eskubide ekonomiko guztiak beste BGAE bateko aurreikuspen-plan batera mugitzen dituenean.

Erabateko mugitzearen kasuetan, partaideari ez zaio ohiko bazkide moduan baja emango, Erakundearen beste gizarte-aurreikuspeneko plan batean bazkide ohikoa edo osokoa bada.

Eskubide ekonomiko guztiak edo batzuk Erakundeko beste gizarte-aurreikuspeneko plan batera mugitzeko, ez da antzintasunik behar, eta ez du aldaketarik eragingo Erakundean bazkide gisa duen antzintasunean.

Eskubide ekonomiko guztiak edo batzuk Erakundeko edo beste erakunde bateko beste gizarte-aurreikuspeneko plan batera mugitu edo intsuldatzea doan izango da, eta eskubide ekonomikoen balioa horiek ordainduko diren egunean indarrean dagoena izango da.

Iraupen luzeko langabeziaren eta gaixotasun larriaren prestazioen jasotzaile izateak ez dakar, nahitaez, ohiko bazkide gisa baja hartu behar izatea.

Ohiko bazkide izateari utziko zaio, halaber, estatutuei jarraiki Erakundeko ohiko bazkide izateari utzi behar zaionean nahitaez.

5. artikulua. Iraupena

Iraupen mugagabea izango du planak.

Hasiera-data, berriz, Eusko Jaurlaritzak onartzen dueneko izango da.

6. artikulua. Modalitatea

Bazkideen arteko lotura dela eta, Enpleguko modalitatean sartzen da plana, eta, ekarpenen eta prestazioen erregimenari dagokionez, Ekarpene Zehatzeko Gizarte Aurreikuspeneko Planaren modalitatean.

7. artikulua. Araubide juridikoa

Planari honako hauek aginduko diote: Araudi honek, atxikipen-eskaera edo buletinak, horren hurrengo aldaketek (kasu bakoitzean dagokionak onartuta), Erakundeko gobernu-organoen erabakiek eta, bereziki, Izarpension, Enpleguko BGAE erakundearen estatutuetan eta borondatezko gizarte-aurreikuspenen alorrean momentuan indarrean dagoen legerian ezarritakoek.

III. titulua. ONDAREAREN INBERTSIOA ETA FINANTZAKETA-SISTEMAK

8. artikulua. Inbertsio-politika eta administrazio-gastuak

Plan honi atxikitako fondoak inbertitzeko, horien izaerarako egokiak diren segurtasuna, likidezia eta errentagarritasuna hartuko dira irizpidetzat, betiere aktibo egokiei eta dibertsifikazioaren, dispartzioaren eta kongruentziaren irizpideei buruz indarrean dagoen araudia kontuan hartuta.

Administrazio-gastuak % 0,15ekoak izango dira, eta planari atxikitako ondarearen arabera kalkulatu dira.

9. artikulua. Finantzaketa-sistemak eta eskubide ekonomikoen zehaztapena

- a) Plana kapitalizazio indibidualeko sistema finantzarioen bidez bakarrik gauzatu da. Prestazioak horien arabera kalkulatu dira, ohiko bazkideek egindako ekarpenekiko baliokidetasuna bilatuta.

Ekarpene zehatzeko plana denez, gertatutako kontingentzia ordaindu behar denean zehaztuko dira prestazioak, planak garaturiko kapitalizazio-prozesuari jarraituz.

- b) Planari atxikitako ondarea hauxe izango da: ekarpen guztien kapitalizazio-fondoak, ken prestazioak eta mugitzeak (kalkuluak aipagai duen aldiaren egindakoak izan ezik), gehi inbertitutako baliabideek sortutako errendimenduak eta aktiboen plusbalioak edo minusbalioak (kalkulua egin den eguneko merkatu-prezioan baloratuta), ken ezarrita dauden administrazio-gastuak. Balorazioarako merkatu-

preziorik ez badago, balio efektiboa erabiliko da, zuhurtzia handieneko irizpideekin eta oro har onartutako balorazio-metodoak erabilia.

Kapitalizazio-fondoak bazkide atxikien eskubide ekonomikoen eta likidatzeko edo ordaintzeko dauden prestazioetarako horniduren balio osoa jasoko du.

- c) Bazkide atxiki bakoitzaren eskubide ekonomikoak zehazteko, hauek hartuko dira kontuan: bai planari egindako ekarpenen kapitalizazio finantzarioa, bai, egokituz gero, bazkide atxikiak gizarte-aurreikuspeneko beste plan batzuetatik planera mugitutako eskubide ekonomikoak. Horiei, gizarte-aurreikuspeneko beste plan batera mugitutako eskubide ekonomikoak kenduko zaizkie.

Eskubide horiek bazkide atxiki bakoitzak planaren posizio-kontuan duen zati alikuotaren ondorio dira, likidatzeko edo ordaintzeko dauden prestazioetarako hornidurak kenduta. Zati alikuota hori zehazteko, bazkide atxiki bakoitzaren mugimendu guztiei kontrabalioa zehaztuko zaie plan-unitateetan, eta bazkide atxikiaren kontuan abonatu dira.

Bazkide atxiki bakoitzarentzat partaide-kontuko saldo bat izango da plan-unitateetan adierazita.

- d) Plan-unitatearen balioa egunero zehaztuko da egun baliiodun bakoitzerako, eta hurrengo baloraziora arte aldatu gabe egongo da. Ohiko bazkideak edo onuradunak 17:00etatik aurrera (penintsulako orduan) edo egun baliogabeen emandako aginduak hurrengo egun baliiodunean emandakoekin batera izapidetuko dira. Helburu horrekin, astelehenetik ostiralera bitarteko egunak hartuko dira egun baliioduntzat, Espainia osoan jai direnak eta ostegun santua kenduta. Edonola ere, abenduaren 31 laneguntzat hartuko da, plan-unitatearen balioa kalkulatzeari begira.

Plan-unitatearen balioa kalkulatzeko, honako eragiketa hau egingo da: likidatu edo ordaintzeko dauden prestazioetarako hornikuntzak kendu ondoren Planean geratzen den posizio-kontua, zati egun horretan indarrean dauden plan-unitateen kopurua.

- e) Bazkide atxiki bakoitzaren eskubide ekonomikoak kalkulatzeko, berriz, plan-unitatearen azken balioa bider partaide-kontuan dauden plan-unitateen kopurua egingo da.
- f) Bazkide etenen eskubide ekonomikoak doitu egingo dira, planean indarrean dituzten urtealdietan egokitzen zaizkien emaitzak egotziz, eta ez da abonatutako plan-unitateen kopurua aldatuko.
- g) Planak ez duenez bere gain hartzen aurreikusten dituen kontingentzien ondoriozko arriskuen estaldura eta eraketa-epealdian gutxienerako intereserako bermerik ez dagoenez, ez da hornidura matematikoak eta kaudimen-marjina eratzea eskatuko.

IV. titulua. BAZKIDEEN EKARPENAK

10. artikulua. Bazkideen ekarpenak

Plan hau finantzatzeko, bazkideek ekarpenak egin beharko dituzte, hain zuzen ere, enplegatzaileraren (Izarpension, Enpleguko BGAEaren bazkide babeslearen) eta langileen (ohiko bazkideen) artean sinatutako hitzarmenaren, akordio kolektiboaren edo xedapen baliokidearen bidez onarturikoak, eta ekarpen horiek planean sartuko dira berehala eta nahitaez.

11. artikulua. Ordainagiriak ordaintzea

Ekarpenak banku-helbideratze bidez (kontuan kargatuz edo transferentzia eginez) edo nominan kargatuz egingo dira.

12. artikulua. Ekarpenak itzultzea

Ekarpenak kobratzeko administrazio-prozesuko hutsegiteen ondorioz ohiko bazkideen banku-kontuetan ekarpenak oker zorduntzen direnean, Erakundeak itzuli egingo ditu, bazkideok eskatu ondoren.

V. titulua. PRESTAZIOAK, ZENBATEKOA ETA PRESTAZIO HORIEN ERAGILEAK

13. artikulua. Definizioa eta izaera

BGAEak estalita duen kontingentziaren bat gertatu izanaren ondorioz planaren ohiko bazkideei edo onuradunei estaltzen zaien eskubide ekonomikoa da prestazioa.

Planaren izaera indibidual eta independente bera dute prestazioek, eta beste edozein prestaziorekin batera jaso daitezke.

Araudi honen 14. artikuluan aurreikusitako prestazioen balioa eskubide ekonomikoek ordaindu beharreko egunean dutena izango da.

14. artikulua. Estaltzen dituen kontingentziak

Hauek dira BGAEak planean estalitako prestazioak jasotzeko aukera ematen duten kontingentziak:

- a) Bazkide oso edo ohikoaren erretiroa. Erretiroaren kontingentzia onartuko da, ohiko bazkidea benetan erretiratzen denean, Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean edo antzekoetan, edo organo eskudunaren arabera. Eragin horietarako, erretiro aurreratua, malgua, partziala eta dagokionean Gizarte Segurantzak onartzen dituen bestelako formulak ere erretirotzat hartuko dira.

Aurreko atalean aipatu dugun erretiroa hartzea ezinezkoa denean, hirurogei urte bete ondoren hartuko da kontingentzia sortuztat.

Egoera hori egiaztatzeko, erretiroa dekretatu edo aitortzea dagokion administrazio-organoren beharrezko ziurtagiria aurkeztu beharko du ohiko bazkideak, edo, bestela, Gobernu Batzordearen iritziz egoera egoki frogatzen duen beste edozein bitarteko.

- b) Ohiko bazkidearen baliaezintasun handia, erabateko ezintasun iraunkorra eta ezintasun iraunkor osoa.

Kontingentzia horiek aurreko a) atalean adierazitako eran egiaztatuko dira.

- c) Ohiko bazkidearen heriotza, arrazoia edozein dela ere, Estatutu Sozialetan adierazitakoaren arabera onuradunek prestazioak jasotzeko eskubidea sortzen badu. Prestazio horien onuradunak edo onuradunek heriotza-ziurtagiria eta onuradunak direla justifikatzen duen agiria aurkeztu behar dituzte.

- d) Iraupen luzeko langabezia

Iraupen luzeko langabeziatzat hartuko da honako baldintza hauek betetzen dituen enplegu-galera edo, langile autonomoen kasuan, jarduera-etetea:

– Legezko langabezia-egoeran egotea, eta ordaindutakoaren arabera prestazioa urtebetez kobratzea, salbu eta prestazioa aurretik amaitu bada.

– Langabeziagatik ordaindutakoaren arabera prestaziorik jasotzen ez denean, inongo eperik itxaron gabe jaso ahal izango da prestazioa, legezko langabezia-egoeran, enplegu-eskatzaile gisa, dagoela frogatzen bada.

Enpleguko Institutu Nazionalak edo erakunde publiko eskudunak jaulkitako ziurtagiriaren bidez frogatuko da egoera hori. Aldian behin berriztatu beharko da ziurtagiria, eta, lan-eskatzaile gisa baja hartzen duenean, berehala jakinarazi beharko du ohiko bazkideak, Enpleguko Institutu Nazionalean edo erakunde publiko eskuduneari.

e) Gaixotasun larria

Ohiko bazkidearen, haren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen, horien lehen mailako aurreko nahiz atzeko ahaideen edo tutoretza- zein harrera-erregimenean ohiko bazkidearekin bizi den edo haren mendean dagoen pertsonaren gaixotasun larriaren ondoriozko gastuak estaltzen ditu kontingentzia honek. Aje fisiko nahiz mentalak edo lesioak hartuko dira gaixotasun larritzat, baldin eta pertsona bere ohiko egitekorako edo jarduerarako ezintzen badute, hiru hilabeteko epean gutxienez, edo ospitalean goi mailako kirurgia edo tratamendua eskatzen badute.

Gastuok ohiko bazkideak ordaindu beharko ditu benetan, eta fakturaren edo aurrekontuaren bidez egiaztatuko dira. Sarrerak txikitu izana ere egiaztatu egin beharko da.

15. artikulua. Jasotzeko era eta zenbatekoa

1. Planak Araudi honen 14. artikuluko a), b) eta c) ataletan jasotako kontingentziei dagozkien prestazioak jasotzeko aukera ematen du, modalitate hauetan:
 - a) Kapitala. Ordainketa-eguneko eskubide ekonomikoen balioaren parekoa izango da.
 - b) Errenta. Finantza-errentatzat hartuko da, eta ohiko bazkideak edo onuradunak mota eta ezaugarriak aukeratu ahal izango ditu, Erakundeko Gobernu Batzordeak une horretan ezarrita dituen modalitateen barruan. Errenta horien ondorioz, Planean eraturako kapitala murriztuz joango da, eta kapitalari, aldi berean, planean sortutako errendimenduak egotziko zaizkio.
 - c) Kapitala/errenta. Aurreko bi modalitateen konbinazioa da.
2. Aurreko d) eta e) ataletan jasotako kontingentziei dagozkien prestazioak modalitate hauetan jaso ahal izango dira:
 - a) Iraupen luzeko langabezia. Hileko errenta bidez jasoko da, eta ordaindutakoaren araberrako prestazio publikoaren ordainketen parekoa izango da, salbu eta ohiko bazkideak ordainketa bakarra eskatzen badu, enplegua sustatzeko helburu zehatzarekin.
 - b) Gaixotasun larria. Kapital moduan jasoko da, eta ezin izango da ohiko bazkideari ordaindutako gastua edo sarrera-txikitzea baino handiagoa izan.
3. Ordainketok bost egun baliodunen barruan egingo dira asko jota, Erakundean ziurtagiri guztiak aurkezten direnetik zenbatzen hasita. Dena den, kontingentzia ohiko bazkidearen heriotza bada, onuraduna zehaztutakoan abiatuko da epea.

Ohiko bazkideak edo onuradunak prestazioa jasotzeko eskubidea duela egiaztatzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion agiriak eskatu ahal izango ditu Gobernu Batzordeak.

Kontuan abonatu edo transferentzia bidez egingo dira ordainketak.

16. artikulua. Eskubide ekonomikoak mugitzea

Ohiko bazkideen eskubide ekonomikoak beste Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde batera mugitu ahal izateko, bazkide osokoaren eta bazkide babeslearen arteko lan-harremana iraungita egon beharko da, 2007ko maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuari jarraiki. Eskubideak osotasunean mugituko dira, bereziki beste enplegu-plan batera, eta, halakorik ez badago, beste edozein aurreikuspen-planetara, betiere Izarpension, Enpleguko BGAEren Estatutuetan aurrez finkatu diren prestazioak kobratzeko moduari buruzko baldintzak eta ezaugarriak betetzen baditu. Ohiko bazkideak enplegatzailearekin duen lan-harremana iraungitzen denetik, bi urteko muga finkatu da, ohiko bazkideak eskubide ekonomikoak beste BGAE batera mugitzeko aukera izan dezan. Edonola ere, epe hori baino lehen egitea ere onar dezake enplegatzaileak, bere irizpideen eta lan-politikaren arabera.

Mugitzeko eskaera jasotakoan, bi hilabete baino lehen erantzun beharko zaio.

Bazkide etenek aitortuta dituzten eskubide ekonomikoei balio egokia eman beharko zaie, 2007ko maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren bosgarren azken xedapenaren arabera.

Eskubide ekonomikoak mugitzeak ez du gasturik sortuko ohiko bazkidearentzat edo onuradunarentzat, eta eskubide horiek ez dira murriztuko.

92/2007 Dekretu hori beste arau batzuek ordezkatu edo aldatzen badute, une bakoitzean aplikatzekoa den arautegiari egingo zaio men.

17. artikulua. Arautegia aldatzea

Arautegi honetan aldaketaren bat egitekotan, Erakundearen Gobernu Batzordeak onetsi beharko du.

Izarpension, Enpleguko BGAE planaren Gobernu Batzordeak aldaketok onartzen dituztenean, Gobernu Batzordearen Aktaren Ziurtagiria Eusko Jaurlaritzaren administrazio-organora igorriko da, hantxe onartzen baitira araudien aldaketak eta araudi berria, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan modu egokian inskribatzeko.

18. artikulua. Plana iraungitzeko arrazoiak eta esleitutako ondarearen norakoa

Plana iraungi egingo da, iraungiaraztera bultzatuko duen edozein arrazoi objektibo badago eta Gobernu Batzordeak onspena ematen badio. Arrazoiok hauek izan daitezke: bazkide edo onuradun kopurua txikia izatea; planari atxikitako aktiboaren bolumena txikia izatea eta, ondorioz, planaren gestioa eraginkorra ez izatea; edo Erakundearen planen gamari barne-antolaketa bat egitea eta plan bat beste batekin bateratzea eskatzea.

Plana iraungitzean, bazkideek informazioa jasoko dute, eskubide ekonomikoak eskuratu gura dituzten ala ez askatasunez erabaki dezaten. Eskubideok eskuratzea erabaki ezean, **Izarpension Lan Bolsa** Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Planera edo Gobernu Batzordeak izendatutako bermerik gabeko beste plan batera intsuldatuko dira. Bazkideek horren guztiaren informazioa jasoko dute.

19. artikulua. Gatazkak konpontzea

Bazkideek eta onuradunek, beren eskubideak defendatzekotan, administrazioaren edo dagokion jurisdikzioaren edozein esku-hartzeren aurretik erreklamazioa aurkeztu beharko dute BGAEn Gobernu Batzordean, eta horrek erantzun egingo die hilabete baino lehen.

Bazkidea edo onuraduna ados ez badago Gobernu Batzordeak eskainitako irtenbidearekin, errekurtsioa jarri ahal izango du BGAE-en alorrean eskuduntza duen Eusko Jaurlaritzaren sailarekin.